

EXPO
PIRIBUS

VOYAGE AU COEUR
DES **PYRÉNÉES**
VIAJE AL CORAZÓN
DE LOS **PIRINEOS**
VIATGE AL CÒR
DELS **PIRINEUS**
VIATJAR ATH CÒR
DES **PIRENÉUS**
PIRINIOETAKO
BIHOTZERA BIDAIA

EXPO BIDAIA ATH COR DE LOS **PYRÉNÉES**
PIRIBUS

PRENTSA-DOSSIERRA

2019 > 2020

LABURPENA

HELBURUA	04
PIRIBUS, PIRINIOEN BIHOTZERA BIDAIA	06
ERAKUSKETA BAT, LAU GUNE	08
PIRINIOEN HISTORIA GEOLOGIKOARI BURUZKO GUNEA	10
PAISAI EI BURUZKO GUNEA	12
BIODIBERTSITATEARI BURUZKO GUNEA	14
GIZAKIAREN HISTORIARI BURUZKO GUNEA	16
ERAKUSKETA NOMADA 32 ETAPATAN	18
MENDIKATEAREN HIZKUNTZA - ANIZTASUNAREN ERAKUSGARRI	20
PIRINIOAK EZAGUTZEKO GIDARITZA ETA BILKETA EGITEKO BIDAIA	22
PIRIBUS, ASKOTARIKO PUBLIKOARENTZAKO BIDAIA	23
PIRIBUS, PIRINIOEN BIHOTZERA BIDAIA ETA PIRINIOEN DNA PROIEKTUA: PIRINIO BIZIRIK INGURUMEN-HEZKUNTZAKO MUGAZ GAINDIKO SAREAREN EKINTZAK	24
PIRIBUS, PIRINIOEN BIHOTZERA BIDAIA - ZIENTIFIKO ETA PEDAGOGIKO KONTSEILUA - KONTAKTUAK	26

HELBURUA

Pirinioak mendiz mendi gurutzatzen dira. Mendi bakoitzak, haran bakoitzak bere ezaugarriak ditu, bere ondarea, baina historia komun batek biltzen ditu guztiak. Pirinioen bihotzera bidaiatuz, mendikatearen DNA aurkitu, partekatu, erakutsi eta osatu nahi dugu, bertako biztanleekin eta bisitariekin batera.

"PIRIBUS, Pirinioen bihotzera bidaiia", 32 etapa Katalunia, Andorra, Aragoi, Nafarroa eta Frantzia barrena, 2019 eta 2020 artean. 20 hilabeteko ibilbidea, erakusteko, entzuteko, ukitzeko, maneiatzeko eta esperimentatzeko, eta, aldi berean, lekukotzak, ikuspegiak, pertzepzioak eta natura- eta kultura-ondarearen eta ondare material nahiz immaterialaren elementuak biltzeko. Igarotako leku bakoitzean, 13 eguneko animazio-programa bat egin da, bertako eragileekin, elkargune bat sortzeko eta Pirinioetako DNA azalerratu eta horri buruz eztabaidatzeko.

Biztanleen eta haien ondarearen artean loturak sortu, mendikatearen mutur batetik bestera hedatzen diren herrien artean harremanak sendotu, belaunaldien artean loturak sortu eta ondare natural, kultural eta turistikoa dinamizatzen duten eragileak harremanetan jarri.

Loturak eta harremanak, Pirinioen DNAREN funtsa!

PIRINIOAK, MUNDU BAT BERE BAITAN

Iberiar penintsularen eta Europako kontinentearen artean kokatutako mendilerroa da. *Wikipédia 2019*

Hispania Pirinioetako Tontorrean hasten da. Estuagoa da alde horretan, ez Galia baino estuagoa, baizik eta berau baino estuagoa ere, hantxetik barneratzen baitira, sakon barneratu ere, ozeanoa, batetik, eta, bestetik, Hiberiko itsasoa, lehen esan dugun bezala. Pirinioetako mendilerro horien eraginez, Hispaniak estuagoak dira ekinozio-ekialdetik negu-mendebalderanzko norabidean hegoaldean baino... Pirinioetatik abiatu eta ozeanoaren ertzetik jarraituz gero, baskoien basoa topatuko dugu... *Plinio Zaharra, K.a. I. mendea.*

Europaren hego-ekialdeko mendikatea, Frantziako eta Espainiako (eta Andorrako printzerriko) lurretan. *Larousse hiztegia 2019*



PIRIBUS

Pirinioen bihotzera bidaia

2019ko martxoaren 29tik 2020ko abenduaren 3ra, Pirinio Bizirik hezkuntza-sareak Pirinioen DNA aztertuko du, mendikatearen ondare naturalaren eta kulturalaren hainbat ikuspegi biltzen dituen erakusketa baten bidez.

Natur zientzien eta giza zientzien bitartez, bisitariak aukera izango du mugako mendi horien aniztasuna eta berezitasunak ezagutzeko, lau guneren bidez (geologia, paisaia, bioaniztasuna eta gizakiaren historia).

1 MUSEOKO AUTOBUS

4 GAI 20 HILABETEKO BIDAIA

12 MODULU MUSEOGRAFIKO

30 000 BISITARI ESPERO DIRA

SAREKO 65 32 ETAPA

EGITURA MOBILIZATUTA
PROIEKTUA SORTZEKO

72 M²-KO EREMU
MUSEOGRAFIKOA

480 ANIMAZIO-EGUN

6 000 KM-KO IBILBIDEA

“ Pirinioak ondo ezagutzeko, hirurehun urte bizi beharko genuke, baina hirurehun urte etengabe gazte izanez, nekatu gabe ibili ahal izateko ”

Norbert Casteret (1897 – 1987) Espeleologo piriniozalea

ERAKUSKETA BAT, LAU GUNE



Pirinioak 72 m2-tan! Espazio hain txikia izanik, zenbait ikuspegi proposatzen ditugu, "mundu masibo" hori ezohiko moduan ezagutu ahal izateko eta mendikatearen paregabeko bioaniztasuna eta berezitasunak ahalik ondoen zukutzeko.

Museografia berritzailea 4 guneren inguruan

Aurkikuntza errazte aldera, bisitariak 4 gune eta 12 gailu izango dituzte eskura: 360°-ko ikuspen-kaskoak, ukimen- eta entzumen-pantailak, objektuen laginak manipulatzeko aukera eta erakusketa bisitatu bitartean edukiak elikatzeko aukera emango duten gailu interaktiboak, eta abar.

Museoa **4 gunetan** dago banatuta, eta bisitarien jakin-mina piztea eta Pirineoak toki berezi egiten dituzten ezaugarriak bilatzen parte hartzea du helburu (**mendikatearen historia geologikoa, paisaiak, bioaniztasuna eta gizakiaren historia**). Aurkikuntza sentsorial, digital eta ludikoz beteriko 72 m2 Pirinioen ondarearen inguruan.

4 guneetako bakoitza totem baten inguruan dago antolatuta. Mendiko lau totem dira; antzekoak forman, baina kolore, egitura eta itxura desberdinekoak. Totemen bidez dago antolatuta erakusketako espazioa, eta gai bakoitzari buruz pentsarazten diote bisitariari.



PIRINIOEN HISTORIA

GEOLOGIKOARI BURUZKO GUNEA

Oso arraroa al da maskor tropikal baten fosila bilatzea Perdido mendiaren gailurrean, 3000 metroko altueran?



Klimak, paisaiak, faunak eta florak 500 milioi urtez izandako bilakaera dugu begien aurrean...; zoratzekoa! Lurraren sakonean sortzen diren eta gainazaleko plaka tektoniko finetan azaleratzen diren prozesu mantso bezain geldiezinaren ondorioa dira Pirinioak. Denbora da funtsezko elementua historia hori ulertzeko. Erloju geologiko handi batek dimentsio horretan sartzen eta mendikatearen bilakaeraren 10 etapa nagusiak ezagutzen laguntzen die bisitariak. Zenbait harkaitz ukituz, harkaitz horien sorreran eta eraldaketan izandako prozesuak identifikatu ahal izango ditu bisitariak...



PAISAI EI BURUZKO GUNEA

Lerrokadurak, gandorrak... Azken finean, paisaia etengabeko bilakaeran dagoen ikuspegiaren araberakoa da.

Idea hori hobeto ulertzeko, bisitariak aukera du emozio berriak bizitzeko, beste baten azalean jarriz eta gauzak beste ikuspegi batzuetatik ikusiz eta sentituz. Soinuzko paisaiak hatz-mamiekin laztanduz, bere melodia sortuko du. Paisaiak lurraldearen eta gizakiak egindako lanaren arteko konbinazioa dira. Leku batzuk bertan behera utzi dira, behar ekonomikoak aldatuz joan dira...; Pirinioak ere bilakaera dinamiko horren lekuko dira. Iragana eta oraina lotzen dituzten aldaketa horiek antzeman ahal izango dituzte bisitariak.

BIODIBERTSITATEARI BURUZKO GUNEA

Naturara bideratutako espazio izatea edo bilakatzea al da Pirinioen bokazio bakarra? Eta Pirinioetako delata uste izan arren, ez ote da zehatzagoa esatea hemengoa dela, baina baita beste leku batzuetakoa ere?



Bisitariak bere haurtzarora egingo du bidaia, eta, bidaia horretan, Pirinioetako basapiztiak agertuko zaizkio, eta nondik datozen esango diote. Gure izaeraren jatorri biogeografikoak ulertzeko bidaia izango da. Espezieen bilakaera konplexuaren eraginez, bizi-forma anitz-anitzak sortu dira. Batzuk agertuz, beste batzuk aldatuz eta beste batzuk desagertuz joan dira. Bizitzaren zuhaitz sinboliko batek irudikatzen du Pirinioetako aniztasun hori. Hala, bisitaria ohartuko da ondare hori zein aberatsa den eta, aldi berean, zein hauskorra den. Izan ere, espezieak gero eta azkarrago ari dira desagertzen, gizakiaren eraginez. Bizitzaren zuhaitz hori erretzen ari ote gara, pixkanaka?

Gure begitartek animalia- eta landare-espezieekin ditugun loturak adierazten dituzte, zalantzarik gabe. Harridura ala beldurra, tristura ala poza, haserrea ala nahigabea. Hainbat emozio sortuko dira bakoitzarengan. Bisitariak aukera izango du lotura horien izaera bizitzarekin identifikatzen jolasteko, baita beste bisitarien erreakzioak ezagutzeko.





GIZAKIAREN HISTORIARI BURUZKO GUNEA

Duela 500.000 urte afrikarrak ginen denak, eta gaur egun?

Eta gaur egun..., Biarnokoak, Bigorrekoak, kataluniarrak, nafarrak, eta, horrez gainera, nire haraneko herritarrak ala munduko hiritarrak? Urteetan zehar, Pirinioak eta haietan gordetako ondarea handik pasa diren inspirazio iturri izan dira. Partekatutako aitortza baten intimitatean, bertako hizkuntzak eta Pirinioak bizi eta maite izan dituztenen hitzak entzunez, bisitariak aukera izango du paregabeko mendikate honekin duen harreman intimoa deskubritzeko... Hurbil zaitetz, izan konfiantza.

Modernitatearekin, antzinako objektuek galdu egiten dute lehen zuten erabilgarritasuna. Museoetan gorde beharreko ondarea ala garai bateko hondakinak dira? Zerk bihurtzen ditu ondare? Objektu modernoek ere bide bera egingo ote dute? Bisitariak aukera izango du ondarea globalizatzeko makina bat erabiltzeko.

Historian zehar, Pirinioak lurraldearen baliabideetatik bizi izan dira (edo biziraun izan dute). Baina arrakasta ekonomikoaren alderdi guztien batuketa ez da oso aspaldikoa. Zabaldtu, atzera egin, eraldatu ala desagertu? Sistema ekonomiko horietako batzuen azterketa denboran zehar...



ERAKUSKETA NOMADA 32 ETAPATAN

“PIRIBUS Pirinioen bihotzera bidai” erakusketa 13,50 metroko plataforma mugikor batean dago instalatuta, eta kamioi handi batek eramaten du atoi.

Geldirik dagoenean, zabaldu, eta 72 m²-ko erakusketa-espazioa sortzen da.

20 hilabetez, 32 geldialdi egingo ditu erakusketak: 4 Nafarroan, 3 Aragoian, 1 Andorran, 10 Katalunian eta 14 Frantzian.

Museoari lotutako animazio-programa, 32 lurraldetarako

Erakusketa egongo den leku bakoitzerako animazio-programa berezi bat egin da, bertako erakundeekin batera (ibilbide gidatuak, sorkuntza-tailerrak, hitzaldiak, sorkuntza artistikoak, bilerak, lekukotzak, argazkiak, errezetak, kondairak...). Leku bakoitzera egokitutako formatua izango du programak. Animazio-programa eramango da aurrera leku bakoitzean, parte hartzen duten eragileen eta eragile horien izaeraren arabera. Hala eta guztiz ere, mendikatearen ikuspegi bat ematea eta Pirinioen DNA osatzen duen ondare bizi hori biltzea izango dira helburuak, kasu guztietan.



32 ITINERAIRES DU PIRIBUS ETAPES



BIDAIA ATH COR DE LOS PYRÉNÉES - VOYAGE AU CŒUR DES PYRÉNÉES



KARBONOAREN KONPENTSAZIOARI BURUZKO LAUKIA

Piribus-en ibilbidean egingo diren CO₂ emisioak konpentsatzeko (16 tona karbono guztira), bi konpentsazio-ekintza aurreikusi dira:

Batetik, ECOVARS programa bultzatuko da, Pirinioetako eta Midi-Pyrénées eskualdeko Behatoki Botaniko Nazionalak altueran dauden habitaten lehengoratzeko martxan jartzeko. Programa horren bidez, «Pyrégraine de neou» izeneko bertako haziak erabiliko dira Pirinioetako eski-estazioetan dauden larreak landaratzeko.

Bestetik, Piribus-en aztarna ekologikoa konpentsatzeko, Amazonian deforestatzen ari diren eremuak berreskuratzeko ekintzak bultzatuko ditu beste programa batek. ECODES Fundazioaren bidez egingo da ekintza hori (enpresa-jardueren ondorioz egindako karbono-emisioak konpentsatzeko Espainiako erakunde da). Ekintza horiek karbono-aztarna konpentsatu izanaren nazioarteko ziurtagiria dute.

MENDIKATEAREN HIZKUNTZA-ANIZTASUNAREN ERAKUSGARRI

Hizkuntza-aniztasuna da Pirinioen bereizgarrietako bat. "PIRIBUS, Pirinioen bihotzera bidaia" aniztasun horren lekuko da.

Hala, bost hizkuntzatan dago eraskusketa: euskaraz, gazteleraz, okzitania-araneraz, katalanez eta frantsesez. Erakusketako materialak testu gehiegirekin ez betetzearren, ia batere testurik gabeko edo testu gutxiko ikusizko materialetan eta bolumendun egituretan oinarritutako erakusketa bat proposatzen da.

Hala eta guztiz ere, lau gunetako bakoitzean, bisitariak aukera izango dute Pirinioetako ondarea sakonago ezagutzeko. Tableta digitaletan, mendikateko bost hizkuntzetako bat aukeratu ahal izango da, eta zientzialariek eta Pirinioetan adituak diren pertsonak gaiei buruzko galdera xumeei erantzun ahal izango dute. Argazki geolokalizatuak dituzten mapen bidez, gai bakoitzaren inguruan leku batetik bestera dauden aldaketak ikusi ahal izango dituzte bisitariak. Azkenik, gai bakoitzeko, erakusketa dagoen lekuan esperientzia bat bizitzeko gonbidapena egiten zaio bisitariari.

Erakusketa inauguratzean oihartzun berezia izango du ekimenak; izan ere, 2019a hizkuntza indigenen nazioarteko urtea da.

Los pirineos vistos por...

Enfin, nous sommes entrés dans les Pyrénées. La surprise et l'admiration m'ont saisie jusqu'à l'étouffement... Les Pyrénées m'avaient exaltée et enivrée comme un rêve qui devait me suivre et me charmer pendant des années.
Georges Sand. Frantziako idazlea

Els Pirineus..., aquesta muntanya d'Europa que no separa, sinó que és un lloc de trobada.
Òscar Ribas Reig. Andorrako politikaria

El Pirineo me ha hecho feliz cuando he cumplido sueños deportivos, cuando he estado en situaciones extremas, cuando me la he jugado de verdad... Estas montañas son mi casa, el sentimiento que me une a ellas es inabarcable con palabras.
Marta Alejandre. Aragoiko alpinista eta mendiko gida

« La muntanya és un mirall, moltes vegades quan estàs sol allà dalt no pots mentir-te, has de ser sincer amb tu mateix, ningú t'observa i les decisions que prens les busques dintre teu. »
Kilian Jornet. Kataluniako mendiko atleta

« Non hago, zer larretan □ Urepeleko artzaina □ mendi hegaletan gora □ oroitzapenen gerora □ ihesetan joan hintzana »
Erramun Martikorena. Euskal artzai eta abeslaria

Qu'as abut per mestresse Noustre dame nature, Hilhe dou créatou, Mey bésiade de toutes. Que t'es juntat a d'ère, Que t'es hort emplegat, A houdécà pertout Las secrètes beutats. Qu'as fenit per touca lou dit dou créatou.
Pierrine Gaston-Sacaze. Biarniko artzai eta botanikaria

PIRIBUS

PIRINIOAK EZAGUTZEKO GIDARITZA ETA BILKETA EGITEKO BIDAIA

Gidaritza

Pirinio Bizirik hezkuntza-sareko hezitzaileek bisita gidatuak eskainiko dituzte Piribus erakusketa irekita dagoen orduetan. Bisita horien bidez, eskuragarriago egin nahi dira erakusketako edukiak. Sareko kideek jarduera-gida bat prestatu dute, baliabide pedagogiko gisa. Bost hizkuntzatan dago gida.

Piribus, materiala baloratu eta biltzeko bidaia

Pirinioetan bi urtez bidaiatu, igarotako 32 lurraldeetan era guztietako objektuak bildu, hainbat esperientzia bizi eta animazioak proposatu ondoren, bildutako guztiari balioa eman nahi diogu, hainbat formatutan argitalpenak eginez: liburuak, irrati-emisioak, Pirinioetako lan-komunitateari 2070ean emandako espazio-denbora kapsula...

Emandakoa itzuli nahi diegu zeharkatu ditugun lurri eta lur horietako biztanleei, "PIRIBUS Pirinioen bihotzera bidaia" erakusketaren bidaian jasotako eduki guztiengatik eskerrak emateko.

PIRIBUS, ASKOTARIKO PUBLIKOARENTZAKO BIDAIA

Adin guztietakoak, hemengoak nahiz hangoak; jende guztia dago gonbidatuta Piribus erakusketa ikusi eta aberastera. Bisitak gidatzeko gidari-talde bat ere egongo da.

Ikasleak

Piribus-eko gidariak, lehen hezkuntzatik bigarren hezkuntzaraino, ikasleei egokitutako proiektu pedagogikoa garatuko dute, eta adin guztietara egokitu dituzte erakusketako edukiak. Maila guztietako eskola-programetan lantzen dira erakusketako gaiak (geeologia, bioaniztasuna, paisaia eta gizakiaren historia). Eduki digital guztiak www.adnpyr.eu webgunean daude zintzilikatuta, bisita prestatzeko edo gerora ikasgelan lantzeko.

Biztanleak, bisitariak, familia

Piriniotar nahiz kanpoko, gazte nahiz heldu, guztiek osatzen dute Pirinioen DNA... Parte hartuz ezagutu eta ikasi egiten da, baina, baita aberastu ere, dakiguna zalantzan jarri, eta bakoitzak Pirinioei buruz duen ikuspegia proposatzen du. Bakoitzak bere harria jartzen du Pirinioetako ondarearen mugarran.

Desgaitasunen bat duten pertsonentzako zerbitzuak

Igogailu baten bidez, mugikortasun murriztuko bisitariak aukera izango dute museoan sartzeko. Erakusketan, zentzumenen bidezko ibilbide bat proposatzen da. Desgaitasunak kontuan izanez, zentzumen guztien ikuspegia aberasten da, eta guztiok ikas dezakegu horretatik. Harri desberdinak eta objektu etnografikoak ukitu, pantaila soinudunarekin norberak bere sinfonia konposatu, Pirinioetako espezie batzuen 3Dko miniaturak dituen bizitzaren zuhaitza, 360°-ko ikuspegia eskaintzen duten bideoak, landare- edo animalia espezieen begirada, Pirinioen historia geologikoaren dimentsioa, Pirinioei buruz duten ikuspegia belarrira xuxurlatzen digun jendea... Zentzumen guztiak adi jarriko zaizkigu. "PIRIBUS Pirinioen bihotzera bidaia" erakusketako etapa bakoitzean, gidariak publiko mota bakoitzera egokitzen dituzte azalpenak.

PIRIBUS ETA PIRINIOEN DNA PROIEKTUA

PIRINIO BIZIRIK INGURUMEN-HEZKUNTZAKO MUGAZ GAINDIKO SAREAREN EKINTZAK

Testuinguru instituzionala

"PIRIBUS, Pirinioen bihotzera bidaia" erakusketa POCTEFA ADN Pyrénées mugaz gaindiko lankidetzaren proiektuaren ekintzetako bat da. Pirinio Bizirik (www.repv.org) hezkuntza-sarean parte hartzen duten sei erakunderen artean partekatutako proiektua da: Frantziako LPO, Kataluniako Generalitatea, Catalunya la Pedrera fundazioa, l'Institut d'Estudis Andorrans CENMA institutua, Aragoiko SEO Birdlife eta GAN-NIK (Nafarroako Ingurumen Kudeaketa), Nafarroako Gobernuaren erakunde instrumentala.

Erakusketaz gainera, Pirinioetako lurraldeari balioa emateko mugikorreko APP bat sortzea, Pirinioetako ondarearekin loturiko eragileak trebatzeko MOOC bat eratzea eta Pirinioetako ingurumen-hezkuntzako estrategia bat definitzea aurreikusten da. Pirinioetako turismoaren, kulturaren eta ingurumenaren arloko 40 organismok baino gehiagok parte hartzen dute proiektuaren segimendu-batzordean.

Europako Batasunak proiektuaren % 65 finantzatu du. Proiektuan parte hartzen duten sei erakundeez gainera, erakunde hauek hartu dute parte proiektuaren finantziazioan: Frantziako Estatua (CGET-DREAL), Okzitaniako eskualdea, Nouvelle Aquitaine eskualdea, Jacetania eskualdea eta Alto Gállego eskualdea.

Sorrera: Pirinio Bizirik hezkuntza-sarea

Pirinio Bizirik 65 taldek osatzen duten eta ingurumen-hezkuntza helburu duen mugaz gaindiko sarea da. Hala, sare horretan biltzen dira Nafarroa, Aragoi, Andorra, Katalunia nahiz Pirinioen Frantziako aldeko hainbat elkarte, natur parke, parke nazional, natur erreserba, fundazio, harrera-zentro, espazio museografiko... 20 urtez sarean hainbat motatako materialak eta sentsibilizazio-tresnak sortu ondoren, talde eta erakunde horiek guztiek, neurri handiagoan ala txikiagoan, parte hartu dute Pirinioetako ondareari buruzko Piribus erakusketaren sorreran.

2016an sareak egindako urteroko topaketetan, 100 hezitzailek baino gehiagok zehaztu zituzten "PIRIBUS, Pirinioen bihotzera bidaia" erakusketaren printzipioak eta oinarriak. 2017an, Bagnères de Bigorre-n (Hautes-Pyrénées, Frantzia) bildu ziren, eta lehen tasunaren arabera antolatu zituzten landu beharreko gaiak. Azkenik, 2018an, Planes de Son-en (Katalunia), zehatz-mehatz definitu zituzten erakusketa osatuko zuten hamabost egiturak, eta erakusketa nola gidatu zehaztu zuten. Beraz, sareko kideek modu kolektiboan sortu dituzte proiektu museografikoa eta erakusketaren eduki guztiak.

Ekoizpena: bazkide-taldea

Urrian egin zen proiektu museografikoa aurrera eramateko lehiaketaren deialdia, eta Bartzelonako GROPEX Exposiciones y Museografía enpresari esleitu zitzaion. Enpresa horrek egin ditu Piribus-en erakusketa-moduluak.

Diseinu grafikoaz, berriz, Zookeeper, Pau en (Pyrénées Atlantiques eskualdea) egoitza duen komunikazio-agentzia arduratu da.

Erakusketako modulu bakoitzera loturiko tableteko edukiak eta funtzionalitatea, ostera, Pauen (Frantzia) egoitza duen Cynétic enpresak landu ditu.

Tautavel historiaurreko europar zentroak egin ditu irudi paleontologikoak dituzten moduluak (Tautavel-eko garezurra, fosilak, etab.).

ZIENTIFIKO ETA PEDAGOGIKO KONTSEILUA

- Jean-Louis Caillabet, Inspecteur honoraire - Education Nationale (France)
- Joseph Canérot, Géologue, professeur émérite - Université de Toulouse (France)
- Empar Carrillo Ortuño, Profesora titular, Institut de Recerca de la Biodiversitat - Universitat de Barcelona (Catalunya)
- Vincenzo Celiberti, Archéologue - Centre d'Etudes et de Recherches Préhistoriques - Tautavel (France)
- Samuel Challeat, Chercheur - Laboratoire OHM sur les pollutions sonores Université de Toulouse (France)
- Ánchel Belmonte, Coordinador científico - Geoparque de Sobrarbe (Aragón)
- Louis Espinassous, Educateur à l'environnement, ethnologue, écrivain, berger, conteur (France)
- Virginio Gaudenzi, Responsable des expositions - MNHN Musée de l'Homme Paris (France)
- François Giustiniani, Conservateur en chef du Patrimoine, directeur des Archives - Hautes-Pyrénées (France)
- Fernando Hualde, Investigador / Ikertzailea (Navarra / Nafarroa)
- Gérard Largier, Directeur - Conservatoire botanique national des Pyrénées et de Midi-Pyrénées (France)
- Guillaume Lecointre, Professeur du Muséum National d'Histoire Naturelle (France), chercheur en systématique
- Jean-Paul Métaillé, Directeur de recherche émérite - CNRS (France)
- Eric Sourp, Responsable du Service scientifique - Parc national des Pyrénées (France)

KONTAKTUAK

FRANCE I

Gwénaëlle Plet - LPO Pyrénées Vivantes +33 (0)6 76 82 40 56

Eric Delgado - LPO Pyrénées Vivantes +33 (0)6 89 27 98 03

Philippe Serre - LPO Pyrénées Vivantes +33 (0)6 74 43 73 32

ARAGÓN I

Carmen Fernández - Comunicación de SEO/BirdLife
prensa@seo.org / cfernandez@seo.org
Tél : 00 (34) 91 434 09 10 - 00 (34) 660 97 93 55

NAFARROA I NAVARRA

Eladio Llorente - NIK-GAN
ellorenr@gan-nik.es - Tél : 00 (34) 686 99 88 82

M^a Jose Larrea Gobierno de Navarra - Dpto. Medio Ambiente
mj.larrea.requejo@navarra.es - Tél : 00 (34) 619 28 92 14

ANDORRA I

Montse Brugulat - Institut d'Estudis Andorrans (IEA)
mbrugulat@iea.ad - Tél : 00 (+376) 742 630

Clara Pladevall - Institut d'Estudis Andorrans (IEA) CENMA
cpladevall@iea.ad - Tél : 00 (+376) 742.630

CATALUNYA I

Mònica Martínez Galante - Generalitat de Catalunya
Oficina de Comunicació i Premsa - Departament de Territori i Sostenibilitat
monica.martinezgalante@gencat.cat - Tél : 00 (34) 934 95 81 88



www.adnpyr.eu



Crédits photographiques :

Michaël Kaczmar, Laurent Nédélec-Parc national des Pyrénées, Gilles Corriol-CBNPMP, Patrizio Martorana, FJAH, arenysam, Dany Valverde, Marta Alejandre, Gwénaëlle Plet-LPO, Jesus Giraldo Gutierrez, Phoenix_a Pk_sarote, Blesky, oksmit, Martin Leber, Tono Balaguer, R. Springinsfeld CC Neste Barousse, CERP Tautavel.